

FITXA: 265 - Irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko sarean dauden liburutegien erabilera sustatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia arautzen duten oinarriak.

Nori zuzendua: Dirulaguntzen onuradun izan daitezke liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-erakunde eskudunak eta udal-liburutegi publikoen arloko zereginak esleituta dauzkaten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erakundeak.

Deialdia: EHAA - Euskal Herriko **Deialdiaren data:** 2026/08/31
Agintaritzaren Aldizkaria

Sarbide-esteka:
<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0038313>

Erreferentziazko araudia: AGINDUA, 2026ko uztailaren 1ekoa. -
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/08/2603737e.pdf>

Eragin eremuak: Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola

Zenbatekoa: 300.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/09/01

Aurkezteko azken eguna: 2026/10/01

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: 30.100,00 €

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia arautzea dute xede oinarri hauek.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) Irakurzaletasuna sustatzearen arloan profesionalei prestakuntza espezifikoa emateko jarduerak. Ez dira sartuko joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta jarduera horietan parte hartzetik eratorritako gainerako dietak.
- b) Irakurketako jarduera osagarriak. Hona hemen adibide batzuk: ipuinaren ordua, irakurketa dramatizatuak, literatura-solasaldiak, literatura-aretoak, besteak beste.
- c) Liburuak eta liburutegiak sustatzeko kanpainak, bereziki haur eta gazteen artean irakurle berriak erakartzekoak.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntza agiri bidez justifikatuko da 2026ko abenduaren 18ra arte.